

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3129

*EBAZPENA, 2023ko ekainaren 19koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baita 2023. urtean publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, digitalizatzeko eta zabaltzeko jardueretarako emandako laguntzen berri.*

2023ko apirilaren 19an argitaratu zen EHAAn Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko apirilaren 5eko Agindua, publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 14. artikulua dioenez, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren ebazpen-proposamena ikusita, Kulturako sailburuordeak ebatziko du prozedura eta emandako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei banakako jakinarazpena egingo ez zaienik. Hortaz, hauxe

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea atxikitako eranskinetan Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko apirilaren 5eko Aginduaren babesean emandako dirulaguntza guztiak eta haien onuradunak (I eranskina), eta, halaber, ezetsitako eskaerak (II eranskina).

Bigarrena.– Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, jendeak horren berri izan dezan.

Interesdunek ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hila-beteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 19a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2023ko ekainaren 29a, osteguna

## I. ERANSKINA

## ONURADUNEN ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Onuraduna	IFZ	Aurkeztutako programa	Zenbatekoa (euro)
Durangaldeko Adiskideen Gerediaga elkarte	G48113153	Ignacio Ansoarena Olazaranen argazki-funts historikoa antolatzea.	4.430,00
Euskal Herriko Txisulari Elkarte	G20161642	Artxibo-funtsa antolatu, katalogatu, digitalizatu eta zabaltzea.	6.457,00 *
(ELA) Manu Robles Aranguiz Kultur Fundazioa	G48446363	ELA sindikatuaren artxibategi historikoa dagoen Valentin Bengoaren funtsa artatu: sailkatu, ordenatu eta deskribatu.	2.646,00
Eibarko klub Deportiboa	G20156782	Artxibo sistema sortzeko programa hirugarren fasea.	5.600,00
Real Automóvil Club Vasco Navarro	G20039210	RACVN Artxiboaren digitalizazio eta zabalikundea.	2.940,00
Iñaki Izarzugaza Lizarraga	1425119C	La Encartada fabrika zaharreko langileekin egindako elkarrizketen digitalizazioa eta transkripzioa. Laugarren eta azken fasea.	600,00
Olaso Dorrea Fundazioa	G20076741	XXgarren mendeko artxiboaren digitalizazioa.	20.000,00
Arantzazuko frantziskotar probintzia (1)	R2000015D	Artxiboaren digitalizazioa eta antolaketa.	11.893,00
Arantzazuko frantziskotar probintzia (2)	R2000015D	Arantzazuko Santutegik frantziskotarren artxiboa digitalizatzea.	14.000,00
Bridgestone Hispania Manufacturing sl	B95922688	Bridgestone-Firestone Artxiboa. Funts grafikoak antolatzea eta katalogatzea.	9.800,00
María Victoria Tejada Manso de Zuñiga (1)	15919995Q	Bengolea-Egiguren eta Villarreal de Beriz Artxiboaren katalogazioa. 2. Zatia.	19.600,00
María Victoria Tejada Manso de Zuñiga (2)	15919995Q	Bengolea- Egiguren eta Villarreal de Beriz Artxiboaren digitalizazioa. 2. Zatia.	17.500,00
Bellota Herramienta, S. L.	B20426078	«Bellota Herramientas» enpresaren artxibo historikoaren katalogazioa.	9.030,00
Fundación Educacion Marianista Domingo Lazaro	G830003004	«Aldapeta Maria» Ikastetxeko (Marianistak) artxiboaren antolaketa eta digitalizazioa. 2. zatia.	7.947,00
Justo de la Cueva dokumentu eta artxibo gunea	G71054548	Antolatu eta deskribatu. Artxibo fisikoa LBFri ematea. Plan orokorraren helburuak: OB2.2, OB2.3, OB5.	7.831,00
Orfeón Donostiarra	G20051132	Donostiako Orfeoaren artxibo dokumentaleko funtsak digitalizatzeke proiektua.	7.000,00
		GUZTIRA	147.274,00

(\*) Dokumentazioaren zati handi bat kasuetatik kanpo geratzen den proiektuak (2.2 artikulua), garaikidea delako. Eskatzaileak emandako datuen arabera, gutxi gorabeherako zatia lagunduko da diruz.

80 puntu: 70%      70 puntu: 65%

2023ko ekainaren 29a, osteguna

II. ERANSKINA  
EZETSITAKO ESKAEREN ZERRENDA

Eskatzailea	IFZ/NAN	Aurkeztutako programa	Ezeztekoaren arrazoia
OE Oficina abril 3000 SL	B83993337	Pascual Aldabe konposagilearen artxiboaren digitalizazioa.	Eskatzaileak ez du Deialdi Aginduaren 2.2 artikuluan finkaturiko onarpen baldintzak betetzen.